

2019/01/11

BUSTURIALDEKO UR PARTZUERGOAK AZPIEGITUREN BARRIKUNTZA ETA MODERNIZAZIORAKO JARDUERA GARRANTZITSUAK JARRIKO DAUZ LASTER

Busturialdeko Ur Partzuergoak laster hasiko dauz azpiegiturak hobetzeko hiru lan eta hauek 557.350 eurotako inbertsio orokorra suposatuko dabe. Burutuko diren lanen artean Bermeoko Portu Zaharrean egingo da, saneamendua hobetzeko eta itsasora egiten diran isurketak saihesteko; beste lan bat Bermeoko edateko ur depositoan egingo da, hau barriztu eta inpermeabilizatuko da guztiz; hirugarren jarduera Kanpantxuko (Ajangiz) Ponpaketaren instalazioen optimizazio eta barrikuntza lanak izango dira. Kalidadezko ura eta ingurumenarekin errespetutsua dan kudeaketa bermatzeko ezinbesteko jarduerak dira hauek, baina kudeaketa eta mantenimendu gastu garrantzitsuak ekarriko dabez be. Izan be, Europar araudiaren arabera, erabiltzaileon fakturan aplikatu behar da gastu hau proportzionalki.

Ur zerbitzu orokorra emoteak etengabeko egokitzapenak eskatzen dauz, bai araudiaren araberrakoak bai ingurumenaren araberrakoak. Hauei erantzun bat emotea ezinbestekoa da ur kalidadea bermatzeko. Ur-horniketa, saneamendu eta uraren arazketarako konplexutasun honek Busturialdeko Ur Partzuergoaren azpiegituretan derrigorrezko hobekuntza bat suposatzen dau. Horregatik, aurrekontuaren zati handi bat inbertsioetara zuzentzen da, espezializazio eta teknologia kota handiagoak lortzeko eta uraren kudeaketa orokorraren kontrol handiagoa izateko. Europako Uraren Esparru Zuzentarauaren errekerimendua da hau. Araudi honek administrazioak eta herritarrak gehiago inplikatzera eskatzen dau, uraren kostu guztiak fakturan sartzea derrigorretan dauelako.

Laster burutuko dira instalazioak hobetzeko hiru obra eta hauetarako inbertsioa 557.000 €koa izango da. Inbertsiorik gehien suposatuko dauen lana Bermeoko Almikeko depositoareneko estrukturaen konponketa, inpermeabilizazioa eta egokitzapena izango da, 272.356,95 €ko aurrekontuagaz eta egiteko hiru hilabeteko epea dago. Almikeko deposituak Bermeoko herria hornitzen dau zati handi batean eta 1927koa da. 2016.urtean barriztu zan eta orduan balbula gelan egin ziran barrikuntzak, 220.000€ko gastuagaz. Bigarren fase honetan, hasitako barrikuntza osotu gura da eta deposituaren barrikuntza osoa amaitu.

Inbertsio handiko bigarren lana, Kanpantxuko (Ajangiz) ponpaketaren barrikuntza osoa izango da, 236.413eurotako inbertsioagaz eta egiteko hiru hilabeteko epeagaz. Azpiegitura hau, 30 urtetik gorako antzinakotasunagaz, Gernika-Lumoko Edateko Uren Tratamendutegira ur gordina emoten deutso, baina eskuz kontrolatzen diran 22kw-ko hiru ponpen bidez egiten dau. Proiektu barriak egokitzapen teknologikoa planteatzen dau proiektu barriak, Burgoako EUTetik ur-ekarpenak eta ponpaketa gaitasuna gehitu ahal izateko urrutiko kontrolaren bidez.

Hirugarren jarduera Bermeoko Portu Zaharrean saneamendua hobetzeari zuzendutako dago eta Frantxuko Ponpaketara heltzen diran saneamenduko antzikako kolektoreetako itsas-intrusioen arazoak ekiditzeko. Hauek Lamiaraneko Hondakin-uren araztegi honetako hondakin-uren bultzada oztopatzen dabe. Horretarako kolektore nagusiko lotura eta estankotasun falta zuzentzea ezinbestekoa da. Horrela, itsasora

egiten diran isurketak ekidituko dira. Jarduera honek 72.838,37 €ko inbertsioa suposatuko dau eta egiteko hiru hilabeteko epea dago.

Azpiegituren mantenimendu kostua

Azpiegitura barri hauen eta etorkizunean egiteke dagozanen ustiapena eta amortizazio kostuak be, Busturialdeko Ur Partzuergorako erronka nagusiak dira. Izan be, hauen mantenimendua konplexua eta garestia da. 2019. urtean, aurrekontuaren %80^a eragiketa eta mantenimenduko gastuei zuzenduta dago eta Urdaibaiko Saneamendu eta Hornikuntza Planaren azpiegiturak gehiezen doazen heinean eragiketa kostuak igo egiten dira. Naiderekin burututako *Busturialdeko Ur Partzuergoko egoera eta etorkizun aukeren Azterketa- Ekonomikoaren* arabera, igotzen doazen gastu hauek eragin zuzena izango dabe BUPeko bezeroen fakturan: 2016 urteagaz alderatuta, 2021. Urtean uraren prezioa %21,7 igo egin beharko zan eta 2030. urteari begira %24.

Lamiaran eta Gernikako Hondakin-uren araztegi biak batera izateak suposatzen dauen kostuak be kontutan hartzen dauz ikerketa honek. 2019an gastu hauek 248.600€koak izango dira, eta Gernikako Hondakin-uren araztegia zarratu arte, 2021an aurreikusita, gastuen kopurua 1.215.300€arte igoko da.

Ezinbestekoa da be fakturatan burututako inbertsioen amortizazioa eta Busturialdeko Ur Partzuergoen aktibo historikoak agertzea. Hoierekin artean hornikuntza sareak, lehen mailakoak (327km linealak) eta bigarren mailakoak (341km linealak), eta saneamendukoak (281km linealak). Azterketa honen arabera, itzuli beharreko aktibo historikoen zenbatekoa 225 milioi eurotakoa da. Elektrizitatearen prezioa be aldakorra da kostuen kalkulua egiterakoan.

Faktore guzti hauek kontutan hartuta eta Busturialdeko bizilagunok uragatik Bizkaiko herritarrek baino gehiago ez ordaintzeko Busturialdeko Ur Partzuergoak Bilbao-Bizkaian sartzeko pausuak kudeatzen dihardu eta horrela, kostuen lurraldeko oreka ezartzeko.